



ZUMAIAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA ONARTU AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA

CONSULTA PÚBLICA PREVIA A LA APROBACIÓN DE LA ORDENANZA GENERAL DE SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

Zumaiako Udalaren asmoa da udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra onartzea.

El Ayuntamiento de Zumaia pretende aprobar la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 130. artikuluan, honako hau xedatzen du:

La Ley 39/2015 —de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas—, en su artículo 130, indica lo siguiente:

“1. Administrazio publikoek berrikusi egingo dute aldian behin beren araudia, erregulazio onaren printzipioetara egokitzeko eta egiaztatzeko ea indarrean diren arauak lortu dituzten aurreikusitako helburuak eta ea justifikatuta eta egoki zenbatetsita zeuden haietan ezarritako kostu eta kargak”

“1. Las Administraciones Públicas revisarán periódicamente su normativa vigente para adaptarla a los principios de buena regulación y para comprobar la medida en que las normas en vigor han conseguido los objetivos previstos y si estaba justificado y correctamente cuantificado el coste y las cargas impuestas en ellas”

Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, *“Ordenantzak eta erregelamenduak aldatzeko, horiek onartzeko egin behar diren izapide berberak bete beharko dira”*.

De acuerdo con lo previsto en el artículo 56 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen local, para la modificación de las Ordenanzas y Reglamentos se seguirán los mismos trámites que para su aprobación.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 133. artikuluan, honako hau xedatzen du:

Asimismo, la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en su artículo 133 dispone:

“1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauetara buruz:

“1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma

Dokumentu kod.	2023IERR0007-A23/11939
CUDO kodea	000.0081.AAAAEX0M.S.wxd
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEX0MS.wxd D



acerca de:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak."

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- c) Los objetivos de la norma.
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias."

Zehaztutako prozedura betetzeko asmoz, Udalak erabaki du Ordenantza berriaren proposamena egin aurretik, kontsulta publikoan jartzea.

Con el objetivo de cumplir el procedimiento dispuesto en esa Ley, el Ayuntamiento ha decidido llevar a cabo una consulta pública previa a la aprobación de la nueva Ordenanza.

Horrenbestez, herritarrek, erakundeek edo elkarteek beren ekarpenak egin ahal izango dituzte, hala nahi izanez gero, 2023ko abenduaren 18 arte, bi bide hauetatik edozein erabilita:

Por tanto, la ciudadanía, organizaciones y asociaciones que así lo consideren podrán hacer llegar sus aportaciones hasta el 18 de diciembre de 2023, por cualquiera de estas dos vías:

- Posta elektronikoz helbide honetara bidalita: idazkaritza@zumaia.eus
- Iradokizunak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuta (Foruen plaza 1, Herritarren Arreta Zerbitzuan).

- Correo electrónico a la siguiente dirección: idazkaritza@zumaia.eus
- Presentando sus sugerencias en el Registro General del Ayuntamiento (Foruen plaza 1, Servicio de Atención Ciudadana).

EKIMEN HONEN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

PROBLEMAS QUE SE QUIEREN SOLVENTAR MEDIANTE ESTA INICIATIVA

Udalak dirulaguntzak ematen dizkie, norgehiagoka bidez edo zuzenean, kultura-, kirol- eta gizarte-arloko kolektibo, pertsona fisiko edo juridikoei eta elkarteei, eta, horrekin, hainbat jarduera publiko edo interes orokorrekoak sustatzen eta bultzatzen ditu, interes publikoko helburuak, programak eta jarduerak lortze aldera.

Desde el Ayuntamiento se conceden subvenciones, ya sea en concurrencia competitiva, ya de forma directa, a los diversos colectivos, personas físicas o jurídicas y asociaciones de carácter cultural, deportivo, social.....fomentando y favoreciendo el desarrollo de multitud de actividades públicas o de interés general, promoviendo la consecución de fines, programas y actividades de interés público.

Zumaiako Udalak eta bere Erakunde Autonomoek Diruluguntzak emateko Ordenantza Orokor Arautzailearen behin behiko onarpena 2014ko irailaren 25eko

La aprobación definitiva del vigente texto de la Ordenanza General Reguladora del Otorgamiento de Subvenciones por el Ayuntamiento de Zumaia y sus Organismos

Dokumentu kod.	2023IERR0007-A23/11939
CUDO kodea	000.0081.AAAAEX0M.S.wdxD
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEX0MS.wdx D



Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Autónomos se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 25 de septiembre de 2014.

Onartu zenetik denbora pasa da eta komenigarria ikusten da aldaketa orokor bat egitea eta legedietan eman diren aldaketetara egokitzea.

El tiempo transcurrido desde su entrada en vigor, aconseja una revisión generalizada de la misma para adaptarse a todas las novedades legislativas.

Era berean, ordenantza berriaren bidez, egungo ordenantzaren aplikazioan sortutako arazoak zuzendu nahi dira eta ordenantza hori dirulaguntza lerro bakoitzaren deialdien oinarri arautzailea izan dadila, hori guztia Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Asimismo, mediante la nueva ordenanza se pretenden corregir problemas surgidos en la aplicación de la actual ordenanza sirviendo la misma como base reguladora de las convocatorias de cada línea de subvención, todo ello según lo dispuesto en el artículo 17.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE LA APROBACIÓN

Beharrezkoa da Zumaiako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokor berria onartzea, norgehiagoka bidez ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak testu bakarrean jartzeko eta zuzeneko dirulaguntzak arautzeko oinarri komunak jasotzeko ere, guzti hori orain arte izan diren lege-aldaketetara egokituz.

Resulta necesario aprobar la nueva Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia, al objeto de que se establezcan un único texto las bases reguladoras de las subvenciones que se otorguen en concurrencia competitiva, así como las bases comunes por las que se rijan las subvenciones directas, todo ello ajustándose a las modificaciones legislativas que ha habido hasta ahora.

ORDENANTZAREN HELBURUAK

OBJETIVOS DE LA ORDENANZA

Arauaren helburuak honakoak dira:

Los objetivos de la norma son los siguientes:

- 1.- Orain arte egondako lege aldaketetara egokitzea.
- 2.- Deialdien oinarriak jasoko dituen toki arautegia izatea.
- 3.- Dirulaguntzen kudeaketa erraztuko duen prozedura ezartzea.

- 1.- Realizar la adaptación a la normativa que se ha aprobado hasta el momento.
- 2.- Disponer de un marco normativo local donde se establezcan las bases reguladoras que sirvan de base de las convocatorias
- 3.- Facilitar la mejora en los procedimientos de gestión de subvenciones .

BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK EDO EZ-ERREGULATZAILEAK

OTRAS OPCIONES REGULADORAS Y NO REGULADORAS

Erregulazioari dagokionez, indarrean dagoen legeriara egokitutako tokiko arau erregulatzailea edukitzea komenigarria ikusten da bereziki toki-eremuan dirulaguntzen

A nivel regulatorio es preciso disponer de una normativa regulatoria local adaptada a la legislación vigente, que normalice y regule en el ámbito local la gestión de la subvenciones.

Dokumentu kod.	2023IERR0007-A23/11939
CUDO kodea	000.0081.AAAAEX0M.S.wxdD
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEX0MS.wxdD



Zumaiako Udala

2023IERR0007-A23/11939

kudeaketa normalizatzeko eta arautzeko.

Ez da bestelako irtenbiderik identifikatu.

No se identifican soluciones alternativas.

Argitaratze data: 2023/11/23

Fecha de publicación: 23/11/2023

Dokumentu kod.	2023IERR0007-A23/11939
CUDO kodea	000.0081.AAAAEX0M.S.wxd
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEX0MS.wxd D